

## KULTURAK ALA/ETA ELIZAK? ARMENIAKO ELIZ KULTURATZEA DELA-ETA

Kristautasunak herri anitz hartu izan ditu bere baitan, eta herrien kristautzeak munta handiko ondorioak izan ere bai herri-kulturen historian. Baina Ebanjelioaren eta Elizen herrietako kulturatzea ez da beti gisa berean gertatu, ez eta politika-modu beraz burutu. Eliza kristauak moldeanitzak izan dira, herri eta kulturetan leku hartzean.

Mendebaldeko Elizak (gehienbat Katoliko Erromatarra eta Erakunde Protestanteak) alde batetik, eta Ekialdekoak bestetik kulturatze horretan gisa kontrajarrian ibili izan dira, batez ere Europan. (*Misio* deitzen mundua besterik da, bere kabuz edo eraman nahi izan dena, alegia).

Eliza Kristauek gure Euskal Herrian ibili izan dituzten bidez galderarik franko bada oraindik aztertu eta erantzuteko; horregatik, argigarri gerta daiteke gurean ere eliz historia ezberdinen alderaketa.

Horretaz zerbait berririk jakin minez heldu nion aurrekoan liburu atsegini bati: *Karékine I<sup>er</sup> Catholicos de tous les Arméniens* (1998)<sup>1</sup>, eliz buruzagi moderno batek Elizaren iragan kulturatzaileaz zer esan zezakeen jakiteko gogoz.

<sup>1</sup> GUAITA, G. (1998): *Karékine I<sup>er</sup> Catholicos de tous les Arméniens. Entretien avec...* Paris: Nouvelle Cité.